



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/03/18

Otaduik Gernikako Arbolaren beste kimu baten landaketan hartu dau parte Zornotzan

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea Zornotzaraino joan da gaur, Gernikako Arbolaren beste kimu bat landatzeko ekitaldian parte hartzeko, Udabarri Dantza Taldearen 50. urteurrenaren ospakizunen barruan. Ohikoa danez, Otaduik, “gure askatasunen, eskubide historikoen eta Bakerako gogoaren sinboloa dan antxinako leinuaren katenmaila” horren egiazkotasunaren egiaztagiria entregau dau.

Batzarretako presidentek hau esan deutse bertan egon diran dantza taldeko kideei: “seguru nau kontu handiz zaintzen jakingo dozuela, eta Udabarri Dantza Taldea Aita Santi Onaindia ahaztuezinaren tutelapean sortu eta hazi zan moduan, kimu hau be udabarri askotan loratuko da, gure karmeldar maitearen irudiaren ondoan, Larreako txoko eder eta nasai honetan”.

Landaketa ekitaldian Onaindiaren oroimena be omendu da, euskal dantza taldearen sortzaileetakoa, Udabarriren berbetan, “gure herrialdearen historia, euskerea, literatura, mitologia eta bertsolaritza” transmitiduten jakin ebalako, beste gauza askoren artean. Haretx gazteak gerizpea emongo deutso Larreako Karmeldarren komentuaren ondoan dagon bustoari.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
18/03/2017

Otadui participa en Zornotza en los actos de celebración del 50 aniversario de Udabarri Dantza Taldea

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, se ha desplazado hoy hasta Zornotza para participar en la plantación de un nuevo retoño del Árbol de Gernika en conmemoración del 50 aniversario del grupo Udabarri Dantza Taldea. Como suele ser habitual, Otadui ha hecho entrega del certificado de autenticidad de este “eslabón de la milenaria estirpe que tan bien simboliza nuestras libertades, derechos históricos y anhelo de Paz”.

La presidenta de Juntas ha dicho a los integrantes del grupo de danzas presentes que está “segura que vais a saberlo cuidar con mimo y que, igual que el Udabarri Dantza Taldea, surgió y creció bajo la tutela del inolvidable Aita Santi Onaindia, también este retoño florecerá muchas primaveras junto a la acogedora efigie de nuestro querido carmelita en este precioso y tranquilo rincón de Larrea”.

El acto de plantación ha servido también para honrar la memoria de Onaindia, uno de los más fieles colaboradores del grupo de danzas vascas, quien supo transmitir, según Udabarri “la historia de nuestro país, el euskera, la literatura, la mitología y el bertsolarismo”, entre otras cosas. El joven roble dará sombra al busto que se encuentra ubicado junto al convento de los Carmelitas en Larrea.